

INTERPRETAZIOA ETA KONTAKETA: Ipuin-kontaketa, Antzerkia, Umorezko pasadizo edo Txistekak

Gaia: libre.

Iraupena: gutxienez, minutu bateko iraupena izan beharko du kontaketak. Horretarako nahi beste txiste edo kontakizun aurkeztu ahal izango ditu bakoitzak.

Lau multzo izango dira parte-hartzaileen jaioturrearen arabera:

Kategoria	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	2008an edo ondoren	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	2002-2007	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
3	1998-2001	200 €ko bonoa	150 €ko bonoa
4	1997an edo aurretik	300 €ko bonoa	200 €ko bonoa

Kategoria bakoitzeko parte-hartzaile kopuruaren eta lanen kalitatearen arabera, bereiz saritu ahal izango dira azpi generoak: ipuin-kontaketa, antzerkia eta txiste edo pasadizoak. Kasu horretan, sariok ere moldatu ahal izango dira.

Lanak aurkezteko modua: Lanak entzunezko edo ikus-entzunezko artxibo digitalean (formatuak: MP3, AVI, MP4 edo FLV) grabatuta aurkeztu beharko dira. Artxibok ahal den neurrian (Webgunea 250 Mb arteko artxiboak igotzeko prestatuta dago), sare bidez aurkeztea gomendatzen da www.bergarakoeuskara.net webgunean horretarako gertatutako formularioa erabiliaz. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.

Artxiboa handia balitz eta webgunera jasotzeko grabazioaren kalitatea txikitu beharra balego edo bestelako arazorik balitz, CD edo DVDan aurkeztuko dira. Edonola ere, lanaren eta egilearen datuak webguneko formularioan sartu beharko dira.

Lehiaketaren helburua ahozketasuna lantzea da eta epaimahaiak lanak baloratzerakoan, kontatera edo antzetzeko modua (ahots modulazioak, isiluneak, intonazioa, gorputz espresioa...) hartuko ditu, batez ere, kontuan. Arrazoi horregatik, ez da antzerki muturik onartuko eta ez da baloratuko kontakizuna orijinala izatea.

Arrazoi horregatik, baliagarriak izango dira, lehendik egindako edozein grabazioen birkontatzeak edo parodiak ere.

Edozein kasutan orijinala ez baldin bada, adierazi egin beharko da lanaren izenburua eta egilea, baldin badu.

2014 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXIX. edizioa



EGILEAREN DATUAK

Generoa (ipaina, bertsoa...): **Kategoria:**

Egilearen izengoitia:

Lanaren izenburua:

Egilearen izen-abizenak:

Jaioteguna:

Helbidea: **Eposta:**

Ikastetxea: **Telefonoa:**


Orri honetako datu pertsonalak Bergarako Udalak behar bezala baimendutako fitxategietan sartuko ditu. Datu horiek udal kudeaketarako erabiliko dira bakarrik, baina beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute ondorengo helbidera zuzenduta:

Bergarako Udala. San Martin Agirre plaza, 1.- 20570 Bergara.



2014 KOLDO ELEIZALDE LEHIAKETAK XXIX. edizioa



Antolatzailea:



Laguntzailea:



KOLDO ELEIZALDE
LEHIAKETAK

OINARRIAK

1.- Partehartzaileak. Lehiaketa honetan Bergaran jaiotakoek edo bizi direnek zein bertan ikasi edo lan egiten dutenek har dezakete parte bakarka zein taldeka.

2.- Lan orijinalak. Oinarri hauetako genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da aurkeztutako lanek orijinalak izan behar duten edo ez. Orijinalak izan beharreko lanen bat hala ez dela frogatuko balitz, lana aurkeztu duenak 50 euroko isuna ordaindu beharko dio Bergarako Udalari.

3.- Lanak aurkezteko modua.

3.1.- Paperean bakarrik entregatu beharreko lanak (ipuin idatzia eta komikia) kartazal handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan eta kartazalaren kanpoko aldean honako hauek idatziko dira:

- "Koldo Eleizalde Lehiaketak" izenburua
- Lanaren generoa: ipuina, komikia...
- Kategoría: 1. kategoría, 2. kategoría...

Kartazal handian, berriz, honako hauek sartuko dira:

- a) Lanaren (idazlanaren, komikiaren...) ale bat. Lanean bertan ez da egilearen izenik jarriko; horren orde z goitzen bat jarriko da.
- b) Beste sobre txiki bat, kanpoan egilearen izen goitía eramango duena eta barruan orri honetan dagoen "Egilearen datuak" atala, beteta.

3.2.- Entzunezko edo ikusentzunezko euskarrian aurkeztu beharreko lanak (antzerkia, ipuin-kontakteta, txiste edo umorezko pasadizoa, bertsoa, elkarrizketa).

Genero bakoitzari buruzko azalpenetan agertzen da lanak nola aurkeztu behar diren.

4.- Lanak aurkezteko epea eta sari-ematea. Telebistarako elkarrizketa proposamena entregatzeko epea martxoaren 7ra artekoa izango da eta beste lanak aurkeztekoa maiatzaren 7ra artekoa.

Sariak, berriz, ekainaren 14an, larunbata, emango dira Udal Pilotalekuan, eguerdiko hamabietan.

5.- Partehartzea saritzea. Parte-hartzaile guztien artean euskarazko aldizkariaren harpidetzak zozkatuko dira.

6.- Jabetza-eskubideak eta lanak berreskuratzea. Aurkeztutako lanak Bergarako Udalaren eskuetan geldituko dira eta Udalak argitaratu ahal izango ditu. Elkarrizketei dagokionez, berriz, Goiena Komunikazio Taldearen esku ere geratuko dira eta berak emititu ahal izango ditu.

Lehiaketara aurkezteak, adierazten du aurreko paragrafoan aipatutako lanen eskubideak Udalari (eta telebistako elkarrizketen kasuan baita Goienari ere) ematen zaizkiola eta, beraz, parte-hartzaileek ez dute lanok argitaratzeagatik sariak aparteko beste ordainik izango.

Saritutako lanen egileek argitaratu ahal izango dute beren lana beste argitalpen batzuetan ere baina bertan adierazi beharko dute Bergarako Udalak antolatutako Koldo Eleizalde Lehiaketan saritua izan dela.

7.- Epaimahaia. Epaimahaia Bergarako Udaleko Euskara batzordeak aukeratutako pertsonen osatuko dute.

8.- Gutxieneko maila. Epaimahaiaren iritzi, talderen batean aurkeztutako lanek, gutxieneko mailarik ez balute, sariak beste taldeetakoei gehituko litzaizkieke, edota hurrengo lehiaketarako gorde.

9.- Ikusentzunezko artxiboak erabiltzeko baimena. Ikusentzunezko generoetan, ulertuko da lanaren bidaltzaileak baduela bertan agertzen diren pertsonen baimena.

Edozein kasutan ere, lanean adinez txikiak agertzen badira, horien guraso edo tutoreek sinatutako baimen idatzia aurkeztu beharko da. Baimen hori eman ahal izango du ikastetxeak lehendik gurasoengandik lortua badu. Baimena emateko formularioa webgunean eskuratu ahal izango da: <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketa>

IPUIN IDATZIA

Gaia: libre.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Bost talde izango dira jaioturtearen arabera eta lanen luzera eta sariak hauek izango dira:

Kategoria	Jaioturtea	Luzera	1. saria	2. saria	3. saria
1	2006-07	1-2 orrialde	Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira.		
2	2004-05	1-2 orrialde	Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira.		
3	2002-03	1-2 orrialde	Ez da, berez, 1. , 2. eta 3. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako hiru sari emango dira.		
4	1999-2000-2001	2-5 orrialde	100 €ko bonoa	70 €ko bonoa	50 €ko bonoa
5	1998 edo aurretik	3-10 orrialde	250 €ko bonoa	200 €ko bonoa	150 €ko bonoa

Laugarren eta bosgarren taldeko lanak tarte bikoitzez makinaz idatzita aurkeztu beharko dira. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

BERTSO EDO KOPLAK

Azalpena: Bertsozat hartzen dugu hemen gutxienez 4 oin dituen eta koplaz gutxienez 2 dituen. Neurria eta doina, libre.

Gaia:

1. kategoría: Honako hiru hauetako bat: Bergarako jaiak, Bergarako auzoak, oporrak.
2. kategoría: Honako hiru hauetako bat: San Martzialak, Erreala, Bergarako auzoak.
3. kategoría: Libre.

Kategoria	Jaioturtea	Bertso kopurua	1. saria	2. saria
1	2000-01-02-03	2 bertso edo 4 koplak	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	1996-97-98-99	3 bertso edo 6 koplak	80 €ko bonoa	50 €ko bonoa
3	1995 edo aurretik	6 bertso edo 10 koplak	150 €ko bonoa	80 €ko bonoa

Bertsoak edo koplak entzutezko artxibo digitalean, MP3 formatuan, kantatuta aurkeztu beharko dira www.bergarakoeuskara.net webgunean horretarako gertatutako formularioa erabiliaz. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.

Bertsoen testua ere txertatu beharko da webgunean. Egileak bakarka aurkeztu beharko dira; ez da, beraz, taldeka egindako lanik onartuko. Era berean, egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

KOMIKI-TIRA

Gaia: libre.

Lanek orijinalak eta inoiz saritu eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Hiru talde izango dira jaioturtearen arabera eta sariak hauek izango dira:

Kategoria	Jaioturtea	1. saria	2. saria
1	2002-03-04	Ez da, berez, 1. eta 2. saririk bereiziko. Oparigaiz osatutako bi sari emango dira.	
2	1999-2000-2001	80 €ko bonoa	50 €ko bonoa
3	1998 edo aurretik	140 €ko bonoa	80 €ko bonoa

Tiraren tamaina: 29 x 10 cm-ko tirak izan beharko dira, nahi adina biñetatan banatuta.

Egile bakoitzak 3 tira aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere. Edozein kasutan, tira bakoitza bere aldetik baloratuko da eta egile berak ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Lehiaketaren helburu nagusietako bat komikien bidez ahozko berbeta lantzea da; beraz, ez da onartuko komiki muturik eta epaimahaia lanak baloratzerakoan, bereziki baloratuko du komiketako testuen egokitasun eta adierazkortasuna.

TELEBISTAKO ELKARRIZKETA

Partehartzaileak: Partehartzaileak 2-3 lagunez osatutako taldeak izango dira eta bi kategoría bereiziko dira parte-hartzaileen jaioturtearen arabera:

Kategoria	Jaioturtea	Sariak
1	1996-2000 (biak barne)	2 sari berdina: 120 €ko bonoa
2	1990-95 (biak barne)	2 sari berdina: 150 €ko bonoa

Talde bereko kideak adin-multzo desberdinekoak badira, taldea kide zaharrenaren multzoan hartuko da kontuan.

Baloratuko den lana: Baloratuko dena honakoa da: lehiaketara aurkezten direnek eurek aukeratutako pertsonaia bati Goiena telebistan egindako elkarrizketa.

Lehenengo aukeraketa eta prestakuntza saioa: Lehiaketan parte hartu nahi dutenek **paperean** eta **2-3 minutuko bideo labur batean** elkarrizketa proposamena aurkeztuko dute eta epaimahaioek kategoría bakoitzeko 5 proposamen aukeratuko dituzte, interesgarri eta egokientzat jotakoak, gero telebistako platoon gauzatu eta grabatzeko. Horretarako aintzat hartuko diren faktoreak honakoak izango dira, besteak beste: elkarrizketatu-gaiak eman dezakeen joko, elkarrizketaren planteamendua, elkarrizketzaileek bideoan agertzen duten soltura... Aukeratzen diren 10 elkarrizketatzaile-taldee goiz bateko prestakuntza-saioa egiteko aukera eskainiko die Goiena komunikazio-taldeak eta geroago elkarrizketak Goiena telebistako platoon grabatuko dira. Grabatutako 10 elkarrizketa horietatik aterako dira saridunak. Elkarrizketatu nahi den pertsonarekiko harremanak Goienak bideratuko ditu.

Epeak: Elkarrizketa proposamena bidaltzeko epea martxoaren 7ra artekoa izango da eta martxoan eta apirilean bideratuko dira formazio-saioak eta platoon grabazioak. Sariak, berriz, Koldo Eleizalde Lehiaketako beste sariekin batera emango dira ekainaren 14an.

Elkarrizketa proposamenen edukia: Egin nahi diren elkarrizketa proposamenak udaleko webgunean azaltzen den formularioari eta bertako azalpenei jarraituz aurkeztuko dira idatziz eta bideoan. Formularioaren helbide zehatza: <http://www.bergarakoeuskara.net/koldo-eleizalde-lehiaketan-parte-hartzeko-orria>.